OSASUN ZAINTZA ETA GAINERAKO PREBENTZIO ESPEZIALITATE TEKNIKOEN KANPOKO ZERBITZUA KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea da kanpoko prebentzio-zerbitzu bat ituntzea prebentzioko espezialitateetan. Bi lote zehazten dira bertan:

- 1 Lotea.
  - Lan medikuntza - Osasunaren zaintza.
- 2 Lotea: Gainerako espezialitateak:
  - Laneko segurtasuna.
  - Higiene industriala.
  - Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua.

Zerbitzu hori emateak berekin dakar Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko[1] 31.3 artikuluan eta harekin bat datorren gainerako arautegian aurreikusitako funtzioak betetzeko udalak behar dituen aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea.

Zerbitzu hori emateak berekin dakar espezialitate bakoitzean urteko lan-plan bat idazteko obligazioa; plan hori Zerbitzu Batzordeari aurkeztuko zaio urte hasieran. Era berean, urteko memoria bat ere idatzi beharko da Aramaioko Udalean garatutako jardueren inguruan; eta memoria horretan, balorazioa jaso beharko da lan-arriskuen prebentzioa haren kudeaketako sistema orokorrean integratzearen eraginkortasunaren inguruan. Ekitaldi bakoitzaren amaieran aurkeztuko da memoria hori.

Kontratuak 2 urteko indarraldia du; luzagarria izango da beste urte betez, gehienez bi aldiz. Guztira, kontratuaren iraupena ez da 4 urte baino luzeagoa izango.

2. PREBENTZIO-ESPEZIALITATEAK.

A) LAN MEDIKUNTZA - OSASUNAREN ZAINTZA (1 LOTEA)

Udalean dagoen informazioarekin eta bere antolakundean datuak jasotzeko inplementatutako sistemen arabera esleipendunak jasotzen duenarekin, **osasuna zaintzeko proiektu** bat prestatuko du, eta proiektu horretan honako hauek jaso beharko ditu: enpresan dauden postuak, postu bakoitzaren arriskuak, postua betetzen duten langileak eta langile bakoitzari aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoak, dagozkion probak barne.

Osasuna zaintzeko jarduera osasun-azterketen urteko programazio baten eta hitzordu-egutegi baten arabera gauzatuko da, eta hori esleipendunarekin koordinatuko du, Prebentzioko Koordinatzaile ardura duen udal langileak.

Osasun-azterketa motak:

1. Hasierako azterketa medikoak: enplegatua lanean hasten denean, hasierako bere egoeraren ebaluazioa egingo da, eta gaitasun/ez gaitasun funtzionalaren irizpena emango; eta, hala badagokio, lanpostuko funtzio-murrizketak eta egokitze beharrak erabakiko dira.
2. Azterketa medikuak, zereginetan funtsezko aldaketak gertatzeagatik: arrisku gehiago ote dagoen baloratzeko.
3. Aldizkako azterketa medikuak: Aldizkakotasuna protokolo mediko aplikagarriek markatuko dute, baina, izaera orokorrez, langile guztiei urtean azterketa bat egingo zaie.
4. Azterketak, absentzia luzeen ondoren lanera berriz itzultzeagatik: Absentziaren kausa ikertuko da, jatorri profesionala otu duen jakiteko. Era berean, baloratu egingo da postuan egokitzapenik egin behar ote den.

10-12 lanpostu inguruk dute Osasuna Zaintzeko Zerbitzurako eskubidea (9, udaletxeko lanpostuak; 1, enpresa publikoko lanpostua; eta, 2, hiru hilabeteko iraupena dituen programarako egiten diren kontratuak).

Osasuna Zaintzeko Zerbitzuak lehentasuna eman beharko die, beste programatuen aurrean, luze iraun duen aldi baterako ezintasun baten ondoren osasun-azterketak egiteari eta, gaitasun-ziurtagiria egingo dute, premiazko izaeraz, prebentzio neurririk eta/edo neurri zuzentzailerik hartu beharko balitz ere.

[1] Beti ere, uneoro indarrean dagoen araudia hartu beharko da kontuan

Aldizkako azterketak, oro har, urtekoak izaten dira, baina urteka azterketa horren ondoren ere beste balorazio batzuk egin daitezke laneko medikuak eskatuta edo ukitutako langileek eskatuta, medikuak egoki iritziko balio. Balorazio horiek gaitasun-ziurtagiriaren formatua izango dute, dagozkion aldaketak sartuta, aldaketarik balego.

A.1. OSASUN-AZTERKETEN EDUKIA:

Azterketa medikuetan, honako proba hauek egingo dira **gutxienez:**

- Anamnesia
- Miaketa fisikoa: neurologikoa, kardiobaskularra, arnas aparatua, abdomenekoa, osteoartikularra eta protokoloetan ezarritako proba espezifikoak.
- Miaketa osagarriak: audiometria, otoskopia, ikusmnaren kontrola, ikuspen kromatikoa, pisua eta altuera, elektrokardiograma eta tentsio arteriala. Protokolo aplikagarrien arabera, honako hauek egin beharko dira: espirometria, tonometria, toraxaren erradiologia, sudur-barrua eta lunbarrak, etab.
- Odol eta gernu analisia: gutxienez honako alderdi hauek osatuta:
  ODOLA: Hematien eta leukozitoen zenbaketa, hematokritoa, hemoglobina, formula leukozitarioa, V.S.G. eta Katz Indizea, VCM, HCM, CMHC eta plaketak. Burdinaren analisia (FE) emakumeentzat.
  BIOKIMIKA: Glukosa, kreatina, azido urikoa, kolesterola (HDL, LDL, TRIGLIZERIDOAK, INDIZE ATEROGENIKOA), GOT, GPT eta GGT.
  GERNUA: Ph , proteinak, glukosa, gorputz zetonikoak, urobilinogenoa,
  bilirrubina eta gernu-jalkina.
  TUMORE MARKATZAILEAK (45 urtetik gorako gizonezkoak): PSA
- Txertoak: Baldin eta badagokio. Halaber, beti ere, indarrean dagoen araudiarekin bat. Horretaz gain, txertoak jartzeari dagokionez, erizaintzakoek botikak emateko baimena arautzen duen urriaren 23ko 945/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, laneko medikuak titularrarena egingo du eta, hala badagokio, erizaintzakoei akreditazioa emango die, osasun-protokoloagatik edo beren borondatez erabaki dutelako txertoa hartu beharra dagoela.

Esleipendunak, gainera, honako hauek egiteko prestasuna izango du:

- Analitika bereziak egiteko, bai langile kolektibo jakinentzat, bai une jakinetan (adibidez, egoera epidemiologikoetan). Analitika horiek lanpostu bakoitzaren arrisku-perfila kontuan hartuta udalarekin hitzartzen diren protokolo espezifikoetan ezarrita geratuko dira kasuan kasu.
- Langile bakoitzari ematen zaion osasun-txosten konfidentziala jasotzeko; eta, probetan lortutako emaitzez gainera, atzemandako alterazio posibleak, osasuna zaintzeko aholku eta gomendioak eta, halaber, langilea espezialista jakin batzuetara joateko komenigarritasuna adieraztea.
- Osasuna zaintzeko zerbitzuaren aurreko esleipendunaren banako historia medikua jasotzeko eta zaintzeko, hala badagokio. Eta, nolanahi ere, beharrezko segurtasun neurriak hartuko ditu, indarreango araudiak ezarritako terminoetan, osasun-datuen nahitaezko konfidentzialtasunerako, bai historia medikuak osatzerakoan bai edozein motatako estatistika-ustiaketan (analisi epidemiologikoak eta abar).

A.2. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK:

Odol ateratzeak egiteko, udalarekin adostutako egun, toki eta baldintzatan egingo dira.

Osasun-azterketak, enpresa esleipendunaren titulartasuneko osasun baimen administratiboa duen zentro medikoan egingo dira. Zentroa Aramaiotik ahalik eta gertuen egon beharko da, garraioak eta hortik eratortzen diren istripu arriskuak saiheste aldera.

Zentro medikoaren instalazioek plegu hauetan zehaztutako funtzioak eta kontrolak bermatzeko behar diren bitarteko tekniko guztiak eduki behar ditu eta esleipendunaren kontura izango da hura berritzea eta une bakoitzean araudi aplikagarriak exijitzen duenera egokitzea. Lan agintaritzak, OSALAN Euskal Autonomia Erkidegoan, emandako indarreango baimena edukiko dute.

Gutxienez osasun-langile hauek egon behar dute lanerako moduan:

- Laneko medikuntzako mediku espezialista bat.
- Enpresako OLT/EUD bat.

Bi profesionalek egoki identifikatuta egon beharko dute kontratuaren hasieran, eta erabat prest egon beharko dute kontratuaren esparruan ezarritako funtzioak betetzeko. Aramaioko Udaleko erreferentea izango dira gaian, eta baita lan-agintaritza eskudunaren aurrean ere.

Azpimarratu beharra dago, esandako profesional horiek gaitasun nahikoa izan beharko dutela beraien lana gutxienez euskaraz egiteko.

B) ESPEZIALITATE TEKNIKOAK (2 LOTEA).

Espezialitate teknikoen alorrean ere, enpresa esleipendunak urteko lan proiektu bat idatziko du udalean jasota dagoen informazioa eskuratu ondoren eta, horretarako, prebentzioko koordinatzaile arduraduna duen langilearen laguntza izango du.

Prebentzio espezialitate bakoitzeko erantzukizuna bere gain hartzen duen teknikari oro Zerbitzu Batzordean parte hartu beharko du horretarako deitua izango balitz eta beharrezkoa izanez gero, bertan egon beharko du lan-agintariek egin ditzaketen bisitaldietan edo lan-agintariekin adostu daitezkeen bileretan.

B.1. LANAREN EDUKIA:

- Laneko segurtasunaren gaian:

  Espezialitate honetako prebentzio-jardueraren gestioan, gutxienez, honako hauek egingo dira:

  1. Prebentzio Plana egitea eta eguneratuta mantentzea.
  2. Larrialdi-planak edo Autobabeserako-planak egitea eta eguneratuta mantentzea.
  3. Prebentzio-jarduketako planak eta programak diseinatzea, aplikatzea eta koordinatzea.
  4. Laneko segurtasunaren faktoreen arriskuen ebaluazioa.
  5. Lehentasunak zehaztea, lan-istripuak prebenitzeko neurriei dagokienez.
  6. Langileei informazioa ematea eta laneko segurtasunari buruzko prestakuntza ematea, prebentzio-planean jasotako baldintzetan.
  7. Urteko Prebentzio Planean jasotako segurtasun-ikuskapen planifikatuak.
  8. Istripu larriak, oso larriak eta hilgarriak ikertzea.
  9. Ebakuazio-simulakroak egitea.

- Higiene industrialaren gaian:

  Espezialitate honetako prebentzio-jardueraren gestioan, gutxienez, honako hauek egingo dira:

  1. Prebentzio Plana egitea eta eguneratuta mantentzea.
  2. Prebentzio-jarduketako planak eta programak diseinatzea, aplikatzea eta koordinatzea.
  3. Urteko Prebentzio Planean jasotako Higiene Industrialeko arrisku-faktoreen ebaluazioa.
  4. Laneko gaixotasunak prebenitzeko neurriei dagokienez, lehentasunak zehaztea.
  5. Langileei Prebentzio Planean jasotako informazioa eta industria-higieneari buruzko prestakuntza ematea.
  6. Agente fisikoen neurketak (zarata, tenperatura, hezetasuna, argiztapena...).

- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuaren gaian:

  Espezialitate honetako prebentzio-jardueraren gestioan, gutxienez, honako hauek egingo dira:

  1. Prebentzio Plana egitea eta eguneratuta mantentzea.
  2. Prebentzio-jarduketako planak eta programak diseinatzea, aplikatzea eta koordinatzea.
  3. Jardueren urteko planean sartutako faktore ergonomikoetatik eta psikosozialetatik eratorritako arriskuen ebaluazioa.
  4. Lehentasunak zehaztea, lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak prebenitzeko neurriei dagokienez.
  5. Langileei informazioa ematea eta ergonomiari eta psikosoziologiari buruzko prestakuntza ematea, prebentzio-planaren arabera.
  6. Laneko estresa prebenitzeko kontuan hartu beharreko neurrien proposamena.

7. Udaleko langileen artean sor daitezkeen gatazketan bitartekotza egitea, gatazka desegiteko jarraibideak emanez. Jazarpen-protokoloa irekitzen bada, horri buruzko txostenak egitea.

B.2. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK:

Kontratu hau egikaritzeko, haren esleipendunak honako giza-baliabide hauek jarri beharko ditu udalaren esku:

- Lan-arriskuen prebentzioko goi-teknikari bat. Horrek hiru prebentzio-espezialitate edo diziplinetako bakoitzean goi-mailako funtzioak egiteko behar den kualifikazioa eduki beharko du, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 37.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Bere solaskide nagusia Prebentzioko Koordinazioaren ardura duen udal langilea izango da. Hizkuntzei buruzko gaitasunari dagokionez, gutxienez, euskaraz hitz egin eta lan egiteko gai izango da.
- Proiektuaren koordinatzaile tekniko bat. Proiektuaren erantzukizun nagusia bere gain hartuko du, eta solaskide-funtzioak egingo ditu maila gorenean udaleko arduradunekin (programazioko irizpide teknikoak ezartzea, kontratua garatzerakoan gorabeherak erabakitzea, etab.), eta lan hori egiteko berehala prest egon beharko du behar denean. Hizkuntzei buruzko gaitasunari dagokionez, gutxienez, euskaraz hitz egin eta lan egiteko gai izango da.
- Psikologo teknikari espezialista, arrisku psikosozialetan Prebentzio Plana egiteko, idazteko eta haren jarraipena egiteko. Hizkuntzei buruzko gaitasunari dagokionez, gutxienez, euskaraz hitz egin eta lan egiteko gai izango da.

Urtean zehar egin beharreko lanak, esleipendunak banatuko ditu bere iritziz dauden beharren arabera, espezialitate tekniko ezberdinen zereginetan.

Bitarteko teknikoei dagokienez, esleipendunak kontratu honen esparruan beharrezko diren prebentzio-jarduerak eta neurketak egiteko behar diren bitarteko teknikoak jarri beharko ditu, esaterako: eremu elektromagnetikoen neurgailua; eremu elektroestatikoen neurgailua Soinu- eta bibrazio-analizagailua; sonometroak eta sonometroa kalibratzekoa Luxometroak; zarataren dosimetroak eta dosimetro kalibratzekoa Estres termikoaren neurgailuak; kamera digitalak eta dagozkion zereginak egiteko beharrezkoa den beste edozein ekipamendu.

ERANSKINA

Plantillako langileen lan tokiak

- Udaletxea
- Udal biltegia

Udal eraikinen zerrenda:

- Udaletxea
- Sastiña eraikina
- Eguneko zentroa
- Udal biltegia (Aita Gabirel)
- Erabilera anitzeko zentroa
- Udal garajea
- Jubilatuen egoitza
- Kultur etxea
- Hiltegi zaharra eraikina
- Anbulategia
- Haurreskola
- Eskola
- Santa Ana ermita
- Kiroldegia
- IBZ eraikina
- Ospitale zaharra eraikina

CONTRATACION DEL SERVICIO DE PREVENCION AJENO DE TODAS LAS ESPECIALIDADES PREVENTIVAS

1. OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto de este contrato es concertar el servicio de prevención ajeno en las especialidades preventivas. Se especifican dos lotes:

- Lote 1.
  - Medicina del Trabajo - Vigilancia de la Salud.
- Lote 2. El resto de las especialidades técnicas:
  - Seguridad en el trabajo.
  - Higiene industrial.
  - Ergonomía y psicosociología aplicada.

La prestación de este servicio implicará el asesoramiento y apoyo técnico necesario que el Ayuntamiento de Aramaio precise para el cumplimiento de las funciones previstas en el artículo 31.3 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y demás normativa concordante[2].

La prestación de este servicio conlleva la obligación de redactar un plan de trabajo anual en cada una de las especialidades que se presentara a la Comisión de Servicios a comienzos de año; así mismo, deberá redactarse una memoria anual de las actividades desarrolladas en el Ayuntamiento de Aramaio que incluirá una valoración de la efectividad de la integración de la prevención de riesgos laborales en el sistema general de gestión de aquel y que se presentara al final de cada ejercicio.

El contrato tiene una vigencia de 2 años, prorrogable por un año más, hasta un máximo de dos veces. En total, la duración del contrato no podrá ser superior a 4 años.

2. ESPECIALIDADES PREVENTIVAS.

A) MEDICINA DEL TRABAJO - VIGILANCIA DE LA SALUD (LOTE 1)

Con la información obrante en el Ayuntamiento y la que reciba el adjudicatario en función de los sistemas implementados para la recogida de datos en su organización, elaborará un **proyecto de vigilancia de la salud** que deberá incluir: los puestos existentes en la empresa, los riesgos de cada puesto, los trabajadores que lo ocupan y los protocolos médicos específicos aplicables a cada trabajador, incluidas las pruebas correspondientes.

La actividad de vigilancia de la salud se llevará a cabo de acuerdo con una programación anual de reconocimientos médicos y un calendario de citas, que será coordinado con el adjudicatario por el empleado municipal responsable de la coordinación de la prevención.

Tipos de reconocimientos médicos:

1. Reconocimientos médicos iniciales: cuando el/la empleada/o se incorpore al trabajo, se realizará una evaluación de su situación inicial y se emitirá un dictamen de aptitud/no aptitud funcional, determinándose, en su caso, las reducciones de funciones y necesidades de adaptación del puesto de trabajo.

2. Reconocimientos médicos por cambios sustanciales en las tareas: para valorar si existen más riesgos.

3. Reconocimientos médicos periódicos: la periodicidad estará marcada por los protocolos médicos aplicables, si bien, con carácter general, tod@s l@s trabajador@s serán sometidos a una revisión anual.

4. Exámenes por reincorporación tras ausencias prolongadas: se investigará la causa de la ausencia para determinar su procedencia profesional. Asimismo, se valorará la necesidad de realizar adaptaciones en el puesto.

[2] Deberá tenerse en cuenta, continuamente, la normativa en vigor

En la actualidad, entre 10 y 12 puestos de trabajo tienen derecho al Servicio de Vigilancia de la Salud (9 puestos del Ayuntamiento, 1 puesto de la empresa pública y 2 contratos eventuales, de tres meses de duración, incluidos en un programa anual).

El Servicio de Vigilancia de la Salud deberá priorizar, frente a otros programados, la realización de reconocimientos médicos tras una incapacidad temporal de larga duración, emitiendo un certificado de aptitud, con carácter de urgencia, por si fuera necesario adoptar medidas preventivas y/o correctoras.

Las revisiones periódicas, con carácter general, tienen carácter anual, sin perjuicio de otras valoraciones posteriores a dicha revisión, a petición del médico del trabajo o de los trabajadores afectados, si el facultativo lo estima oportuno. Dichas valoraciones tendrán el formato de certificado de aptitud con las modificaciones que procedan, en su caso.

A.1. CONTENIDO DE LOS RECONOCIMIENTOS MÉDICOS:

En los reconocimientos médicos se realizarán, **por lo menos**, las siguientes pruebas:

- Anamnesis
- Exploración física: neurológica, cardiovascular, aparato respiratorio, abdominal, osteoarticular y pruebas específicas establecidas en los protocolos.
- Exploraciones complementarias: audiometría, otoscopia, control de la visibilidad, visión cromática, peso y altura, electrocardiograma y tensión arterial. Según los protocolos aplicables se deberá realizar espirometría, tonometría, radiología del tórax, interior de la nariz y lumbares, etc.
- Análisis de sangre y orina: compuesto al menos por los siguientes aspectos:
    - Sangre: recuento de hematíes y leucocitos, hematocrito, hemoglobina, fórmula leucocitaria, V.S.G. e Índice de Katz, CCM, HCM, CMHC y plaquetas. Análisis del hierro (Fe) para mujeres.
    - Bioquímica: glucosa, creatina, ácido úrico, colesterol (HDL, LDL, triglicéridos, Índice Aterogénico), GOT, GPT y GGT.
    - Orina: Ph, proteínas, glucosa, cuerpos cetónicos, urobilinógeno, bilirrubina y sedimento urinario.
    - Marcadores tumorales (varones mayores de 45 años): PSA
- Vacunas: si procede. Asimismo, siempre de acuerdo con la normativa vigente. Además, en cuanto a la vacunación, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 945/2015, de 23 de octubre, por el que se regula la autorización de dispensación de medicamentos por parte del personal de enfermería, el médico del trabajo actuará como titular y, en su caso, acreditará al personal de enfermería por protocolo sanitario o por decisión voluntaria.

Además, el adjudicatario deberá estar preparado para:

- Realizar analíticas especiales, tanto para trabajadores colectivos concretos como en momentos puntuales (por ejemplo, en situaciones epidemiológicas). Dichas analíticas quedarán establecidas, en su caso, en los protocolos específicos que se acuerden con el ayuntamiento en función del perfil de riesgo de cada puesto de trabajo.
- Recibir el informe médico confidencial que se entrega a cada trabajador, indicando, además de los resultados obtenidos en las pruebas, las posibles alteraciones detectadas, los consejos y recomendaciones para la vigilancia de la salud y la conveniencia de que el trabajador acuda a determinados especialistas.
- Recibir y, en su caso, custodiar, el historial médico individual del anterior adjudicatario del servicio de vigilancia de la salud. Y, en todo caso, adoptará las medidas de seguridad necesarias, en los términos establecidos por la normativa vigente, para la confidencialidad obligatoria de los datos sanitarios, tanto en la elaboración de historiales médicos como en cualquier tipo de explotación estadística (análisis epidemiológicos, etc.).

A.2. RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES:

Las extracciones de sangre se realizarán en los días, lugares y condiciones acordados con el Ayuntamiento.

Los reconocimientos médicos se realizarán en el centro médico que cuente con la autorización sanitaria administrativa titularidad de la empresa adjudicataria. El centro deberá estar lo más cerca posible de Aramaio para evitar los transportes y los riesgos de accidentes que de él se deriven.

Las instalaciones del centro médico deberán contar con los medios técnicos necesarios para garantizar las funciones y controles establecidos en los presentes pliegos, siendo a cargo del adjudicatario su renovación y adecuación a lo exigido en cada momento por la normativa aplicable. Contarán con la autorización vigente otorgada por la autoridad laboral, Osalan en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por menos, deberá estar disponible, el personal sanitario siguiente:

- Un médico especialista en medicina del trabajo.
- 1 ATS/DUE de empresa.

Ambos profesionales deberán ser adecuadamente identificados al inicio del contrato y estar plenamente preparados para desempeñar las funciones establecidas en el marco del contrato. Serán el referente del Ayuntamiento de Aramaio en la materia y también ante la autoridad laboral competente.

Hay que destacar, que dichos profesionales deberán tener la capacidad suficiente para realizar su trabajo al menos en euskera.

B) ESPECIALIDADES TÉCNICAS

También en el ámbito de las especialidades técnicas, la empresa adjudicataria redactará un proyecto de trabajo anual una vez obtenida la información que conste en el Ayuntamiento, contando para ello con la colaboración del trabajador/a que ostente la condición de coordinador/a responsable de prevención.

Todo técnico que asuma la responsabilidad de cada especialidad preventiva deberá participar en la Comisión de Servicios si fuera convocado al efecto y, en caso necesario, estar presente en las visitas que puedan realizar las autoridades laborales o en las reuniones que se acuerden con las mismas.

B.1. CONTENIDO DEL TRABAJO.

- <u>En materia de seguridad laboral:</u>

  La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad consistirá, al menos, en:

  1. Elaboración del Plan de Prevención y mantenimiento actualizado del mismo.
  2. Elaboración de Planes de Emergencia o Planes de Autoprotección y mantenimiento actualizado de los mismos.
  3. Diseño, aplicación y coordinación de los planes y programas de actuación preventiva.
  4. Evaluación de riesgos de los factores de Seguridad en el Trabajo.
  5. Determinación de las prioridades en relación con las medidas de prevención de accidentes de trabajo.
  6. Información a los trabajadores y formación en Seguridad en el Trabajo en los términos recogidos en el Plan de Prevención.
  7. Inspecciones planeadas de seguridad incluidas en el Plan anual de Prevención.
  8. Investigación de accidentes graves, muy graves y mortales
  9. Realización de simulacros de evacuación.

- <u>En materia de higiene industrial:</u>

  La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad consistirá, al menos, en:

  1. Elaboración del Plan de Prevención y mantenimiento actualizado del mismo.
  2. Diseño, aplicación y coordinación de los planes y programas de actuación preventiva.
  3. Evaluación de los factores de riesgo de Higiene Industrial incluidos en el Plan Anual de Prevención.

4. Determinación de las prioridades en relación con las medidas de prevención de enfermedades profesionales.
5. Información a los trabajadores y formación en Higiene Industrial, incluida en el Plan de Prevención.
6. Mediciones de Agentes Físicos (ruido, temperatura, humedad, iluminación...).

- En materia de ergonomía y psicosociología aplicada:

La gestión de la actividad preventiva en esta especialidad consistirá, al menos, en:

1. Elaboración del Plan de Prevención y mantenimiento actualizado del mismo.
2. Diseño, aplicación y coordinación de los planes y programas de actuación preventiva.
3. Evaluación de riesgos derivados de los factores Ergonómicos y Psicosociales incluidos en el Plan anual de actividades.
4. Determinación de las prioridades en relación con las medidas de prevención de accidentes de trabajo o enfermedades profesionales.
5. Información a los trabajadores y formación en Ergonomía y Psicosociología según el Plan de Prevención.
6. Propuesta de medidas a tener en cuenta para la prevención del estrés laboral.
7. Mediación en posibles conflictos entre trabajadores del Ayuntamiento, facilitando pautas tendentes a la disolución del conflicto. Si se abren protocolo de acoso, realización de informes relacionados con el mismo.

B.2. RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES:

Para la ejecución del presente contrato, su adjudicatario deberá poner a disposición del Ayuntamiento los siguientes medios humanos:

- Un técnico o técnica superior en prevención de riesgos laborales. Esta persona deberá contar con la cualificación necesaria para el desempeño de las funciones de grado superior en cada una de las tres especialidades o disciplinas preventivas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 37.2 del Reglamento de los Servicios de Prevención. Su interlocutor principal será el trabajador municipal responsable de la coordinación de la prevención. En cuanto a la competencia lingüística, al menos será capaz de hablar y trabajar en euskera.
- Una persona coordinadora técnica del proyecto. Asumirá la responsabilidad principal del proyecto y ejercerá las funciones de interlocución al más alto nivel con las y los responsables municipales (establecimiento de criterios técnicos de programación, determinación de incidencias en el desarrollo del contrato, etc.), debiendo estar disponible inmediatamente para ello cuando sea necesario. En cuanto a la competencia lingüística, al menos será capaz de hablar y trabajar en euskera.
- Técnica o Técnico Especialista en Psicología para la elaboración, redacción y seguimiento del Plan de Prevención de Riesgos Psicosociales. En cuanto a la competencia lingüística, al menos será capaz de hablar y trabajar en euskera.

Los trabajos a realizar a lo largo del año, serán distribuidos por el adjudicatario en función de las necesidades que considere, en las tareas de las diferentes especialidades técnicas.

En cuanto a los medios técnicos, el/la adjudicataria/o deberá facilitar los medios técnicos necesarios para la realización de las actividades preventivas y mediciones necesarias en el ámbito del presente contrato, tales como medidor de campos electromagnéticos, analizador de sonido y vibración de campos electroestáticos, de calibración de sonómetros y sonómetros, de dosímetros de ruido y de calibración de dosímetros de medida de estrés térmico, cámaras digitales y otros aparatos necesarios para la realización de las tareas correspondientes.

ANEXO

Lugares de trabajo del personal de plantilla:

- Casa Consistorial
- Almacén municipal

Relación de edificios municipales:

- Casa Consistorial
- Edif. Sastiña
- Centro de día
- Almacén municipal (Aita Gabirel)
- Centro municipal polivalente
- Garaje municipal
- Centro de jubiladas/os
- Casa de cultura
- Edif. Hiltegi zaharra
- Ambulatorio
- Haurreskola
- Escuela
- Ermita Santa Ana
- Polideportivo
- Edif. IBZ
- Antiguo Hospital

EGINBIDEA.- Nik, Idazkariak, egiten dut, egiaztatzeko honako baldintza tekniko partikularren agiri hau, 2024ko azaroaren 11ko 338/24 Alkatetza Ebazpenak onartu dituela.

DILIGENCIA.- La extiendo yo, el Secretario, para hacer constar que el presente pliego de cláusulas técnicas, ha sido aprobado por el Decreto de Alcaldía 338/24 de 11 de noviembre de 2024

Idazkaria / El Secretario